

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

ARABAKO BATZAR NAGUSIAK

Hutsen zuzenketa, lehiaketa-oposizio bidez itzulpen-, zuzenketa- eta interpretazio-teknikariaren plaza hornitzeko oinarri espezifikoak eta deialdia onesteko Arabako Batzar Nagusien Mahaiak hartutako erabakiari

Huts bat antzeman da lehiaketa-oposizio bidez itzulpen-, zuzenketa- eta interpretazio-teknikariaren plaza hornitzeko oinarri espezifikoak eta deialdia onesteko Arabako Batzar Nagusien Mahaiak hartutako erabakiaren testuan, zeina argitara eman baitzen 2021eko ekainaren 18ko 67. ALHAOn. Hortaz, hutsa zuzendu egin da:

Hau dioen tokian:

“Oinarri orokorretan ezartzen direnez gainera, batxilergo edo teknikari titulua edo baliokidea eduki beharko da, edo hura jaulkitzeko eskubideak ordainduta eduki.”

Hau esan behar du:

“Oinarri orokorretan ezartzen direnez gainera, graduko unibertsitate-titulua, lizentziatura edo baliokidea eduki beharko da, edo hura jaulkitzeko eskubideak ordainduta eduki.”

Vitoria-Gasteiz, 2021eko ekainaren 22a

Lehendakaria

PEDRO IGNACIO ELÓSEGUI GONZÁLEZ DE GAMARRA